

EGILEA

ARGITALPEN MUNDU BERRIAN

2016 IRAILA 16



ANTOLATZAILEA:



Asociación de Escritores
de Euskadi

Euskadiko Idazleen
Elkartea

BABESLEA:



LAGUNTZAILEA:



HIZLARIEN BIOGRAFIAK ETA ELKARRIZKETAK

HEDABIDEK LIBREI ERABIL DITZAKETE MATERIAL HAUEK

‘Egilea argitapenaren mundu berrian’ III Jardunaldian artiruko diren hedabideen lana errazteko, Euskadiko Idazleen Elkartek (AEE/EIE) hizlariak egindako hausnarketa eta adierazpen bilduma hau helarazten dizu. Halaber, aditu bakoitzaren biografiak islatu ditugu aipamenak hartzeko edo informazioak osatzeko. Hedabideek material hauek libreki erabil ditzakete AEE/EIE iturri bezala aipatu gabe.



**MICHAEL
BHASKAR**

**IKERLARIA, 'EDUKIAREN MAKINA'
LBUURAREN EGILEA**

 @michaelbhaskar

NON ARITUKO DA?

Análisis de los nuevos modos de editar y de las fuerzas económicas y sociales que están transformando la lectura
10:00-11:45

Michael Bhaskar idazlea, ikerlaria eta argitaratzaile digitala da. Canelo-ko ko-sortzailea da, argitaletxe berri bat alegia. Argitalpenari buruz, komunikabideen etorkizunari, sorkuntza industriari eta egunkarientzako, aldizkarietarako eta blogentzako teknologien ekonomiari buruz luze idatzi eta hitz egin du. Hitzaldiak ematen ditu, unibertsitateetara et beste sinposioetara joaten da mundu osoan zehar (azken lau urteetan hirurogeita hamar hitzaldi baino gehiago eman ditu, TEDx hitzaldi bat barne). Bere artikuluak The Guardian, Financial Times, VentureBeat, Wired eta The Daily Telegraph eta BBC 2, BBCren Munduko Zerbitzuan, BBC Radio 4, NPR eta Bloomberg TV komunikabideetan argitaratu edo aipatu dira, beste batzuen artean. Michael-ek Literatura Ingelesean titulu bat du Oxfordeko Unibertsitatean, non Gibbs Unibertsitatea Saria lortu zuen. Bere ikerketak, argitalpenerako eta beste industriarentzako teknologia digitalak enpresa eta kultura testuingurua nola eraldatzen ari duen moduan datza. Saritutako monografia bat idatzi du 'Edukiaren makina' izenburupean ('La máquina del contenido', Fondo de Cultura Económica, 2015), argitalpenaren iraganaren, gaurkoaren eta etorkizunaren gaineko esplorazio berritzaile akademikoa.

"GAUR EGUN EZ DUZU ARGITARATZAILE PROFESIONALIK BEHAR, SARE DESZENTRALIZATUEK EDONORI AHALBIDETZEN BAITIOTE ARGITARATZEA. ARGITALETXEK BALIO HANDIA SORTZEN DUTE ORAINDIK, BAINA EPE LUZERA ZAILAGO EDUKIKO DUTE"

Zeintzuk izan behar dute argitaratzaile digital baten ezaugarriak?

Nire iritziz, beste edozein argitaratzailearenak bezalakoak. Komisarioak eta edukiaren handigailuak dituzten argitaratzaileak. Hori da bere paper nagusia, bai antzinako Txinari buruz ari bagara edo Gutenbergen Alemaniari buruz edo Silicon Valleyko enpresei buruz gaur egun. Ezberdintasuna abiaduran datza eta argitaratzaile digitalaren erreakzio gaitasunean. Azkarra eta trebea izan daiteke eta izan beharra du.

'Edukiaren makina' zure liburuan, aktore bitartekari berriek (hala nola Tumblr, Twitter edo Medium) argitaratzaile tradizionalen eginkizuna ordezkatzearen posibilitatea aipatzen duzu. Ideia honetan sakondu dezakezu?

Oraindik Interneten hasierako txanpak bizitzen ari ditugu, baina jada argi geratu da industria tradizionalak astintzeko bere gaitasun handia. Argitalpen munduan errealitate honen islarik muturrekoena da gaur egun ez duzula argitaratzaile profesionalik behar, sare deszentralizatuek edonori ahalbidetzen baitiote argitaratzea. Hau ez da gauek egunera gertatzen eta argitaletxeek oraindik balio handia sortzen dute. Baina, zer gertatuko da epe luzera? Uste dut geroz eta zailago edukiko dutela. Jendea dena bere kabuz egiteko gai izango da sare handi hauen bitartez.

Internetek aniztasuna sustatzen duela entzun dugu, baina ikusten ari duguna zentralizazioa ezartzen ari dela da ordea. Zer egiten ari dugu gaizki?

Bi gauza. Lehenik, ez gaude ezer gaizki egiten ari. Zentralizazio mota hau sarren ezaugarri bat da. Bere egitura dela eta horrela dator egina. Hortaz, Interneten eredu muturreko zentralizazioa eta muturreko aniztasuna da aldi berean. Ahots pila dugu bere historia propioak kontatuz, baina denak plataforma bakarrean: demagun, Twitter edo Facebook. Errealitate hori ulertu behar dugu eta ondoren erdigunea nola berberaizatu dugun imajinatzen hasi. Zaila izango da.

Royaltiak eta egile eskubideak mundu digitalera moldatzeko modurik al dago?

Bai, zalantzarik gabe. Hori da nire argitaletxe digitalean egiten ari duguna, Canelon alegia. Lehen egunetik %50ko royaltiak eskaintzen ditugu eta bost urteko luzera duten lizentziekin lan egiten dugu, copyrightaren babes epearen aurrean. Formula hau gardenagoa dela uste dugu, askoz ere zuzenagoa eta mundu digitalera askoz ere moldatuagoa.



RÜDIGER WISCHENBART

IKERTZAILEA, GLOBAL EBOOK
TXOSTENAREN EGILEA

 @wischenbart

NON ARITUKO DA?

Liburuaren merkatuak munduan zehar
10:00-11:45

Rüdiger Wischenbart 1956an jaioa Grazen, Austria, "Contenido y Consultoría" ko sortzailea (2005etik), kulturean, kultura industrietan, liburu merkatu globaletan, liburuaren industrian berrikuntzan, literaturan, komunikabideetan eta sareetako komunikazioan espezializaturiko idazlea. Azken urteetan mundu mailako merkatuak ikertu eta txosten ungaritan parte hartu du, zehazki "Global eBook", "Global Publishing Markets" inkesta Argitaratzaileen Nazioarteko Elkartearantzako, (IPA), eta "Global Ranking of the Publishing Industry", 2007tik urtero eguneratua (Livres Hebdo Frantzia hasia, eta liburu saltzaileak ko-argitaratua, Erresuma Batua, buchreport, Alemania, Publish-News Brasil, eta Publishers Weekly, Estatu Batuak). Wischenbart "Diversity Reports" testuaren ko-egilea da ere, 2010, 2009 eta 2008ko Europako kulturetan zehar itzulpenen merkatuen azterketa bat. BookExpo Americako nazioarteko aferen zuzendari lanetan dabil, Global Market Forumeko Koordinatzailea da, eta Berlingo Publishers' Forum programa zuzentzen du.

"LIBURUAREN ETORKIZUNAK EZ NAU KEZKATZEN, BAINA BAI ARGITALETXEAK, LIBURU SALTZAILEAK, EGILEAK ETA ITZULTZAILEAK BEZALAKO AKTORE TRADIZIONALENA, LEHIAKIDE BERRIEKIN LEHIAN BAITAUDE"

Liburu industriaren 5 argitaletxe handien salneurri politikak Amazonen salmentak igotzen laguntzen ari duela uste al duzu?

Bai, zalanarik gabe. Amazon eskaintza arku oso zabalean egiten du lan, autoargitaratuetatik argitaletxe tradizionaletaraino, eta bere salneurri unibertso propioa definitzen du, kontsumitzailearekin harreman zuzenean. Argitaletxe tradizionalentzako, hau desabantaila nabarmena da, ez baitute bere liburuak erosten duen hain publiko handi zuzenik.

Haien liburuaren salmentei buruz bai paperezko argitaletxeen bai eta digitalen opakotasun politika deuseztatzeko modurik dagoela uste al duzu?

Bai, ahalik eta datu gehien argitaratuz, eskuragarri dauden iturri guztietatik. Honek gainera hainbat eta argi gehiago edukiko, argitaletxe eta banatzaile gehiagok nahiko dute parte hartu. Hori da gardentasunaren boterea obskurantismoaren aurkari.

Zu argitalpen industriaren nazioarteko merkatu ezberdinen aldaketa digital nagusiak ikertzen aritzen zara. Zeintzuk dira merkatu hauen arteko ezberdintasun nagusiak?

Ingelera hitz egiten den tokien, ingelera hitz egiten ez den Europar Batasunaren, Erdi Europako merkatu txikien edo Brasil edo Txina bezalako merkatu erraldoien artean ezberdintasun horiek aurkitzen hasi berri gara, besterik ez. Bilakaera toki bakoitzean oso ezberdina da, merkatuaren banaketaren araberakoa, salmenta komertzialen eta hezkuntza argitalpenen eragina, salmenta kanalak, gailuak... Asian, adibidez, jada dena da mugikorra. Ezberdintasun horiek denboraldi batez handitzen jarraituko dute. Egoera orekatua ez beste dena da.

Nola ikusten duzu liburuaren etorkizuna?

Ez dut inolako kezkarik liburuaren etorkizuna dela eta, baina bai asko aktore tradizionalekin (argitaletxeak, liburu saltzaileak, egileak, itzultzaileak) eta haien diru sarrera iturriekin, lehiakide berriei ari baitiete egiten aurre, bai tradizionalak (Amazon) bai tradizionalak ez direnak. Adibidez, testua audio-liburuarekin aldatzea.



**JAVIER
CELAYA**

**KULTURA DIGITALEAN ADITUA,
DOSDOCE-REN SORTZAILEA**

@javiercelaya

NON ARITUKO DA?
Mesa redonda inaugural
10:00-11:45

Javier Celaya (Bilbo, 1963) Dosdoce.com-eko kide-sortzailea da. 2004ean hasi zenetik, Dosdoce.com-en helburua kulturaren munduko profesionalen laguntza ematea izan da (argitaratzaileak, liburu dendak, liburutegiak, museoak, fundazioak, besteak beste) bizitza egokitu zaigun aro digitala ulertzeko. Javier Espainiako Aldizkari Digitalen Elkarteko presidentordea da (ARDE, Asociación de Revistas Digitales de España) eta Economía Digitalaren Espainiar Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko bokala (Asociación Española de la Economía Digital, Adigital), bai eta Bookwire Espainia eta Latinoamerikako Zuzendari Orokorra, liburu elektronikoaren banaketa plataforma nagusia, mundu osoko 1.000 argitaletxe ingururen 160.000 ebook dituen. Javier ere hainbat ekimen digitalen aholkulari estrategikoa eta inbertsorea da, hala nola Tekstum, Seebook, The Spanish Bookstage, Vivlios, Komilibro, Slicebooks, besteak beste. Javierrek Unibertsitate Autonomoko (UAM) Edizio Masterrean klaseak ematen ditu, bai eta Carlos II Unibertsitatean Kultura Kudeaketa Masterrean eta Madrilgo Complutense Unibertsitateko Edizio Masterrean ere.

[Biografia osoa: <http://ow.ly/kZi5302rRyr>]

"ALGORITMO ADIMENTSUEK EDUKI DIGITALAK AURKITZEKO MODUARI BIRA EMANGO DIOTE. EZ DIGUTE BAKARRIK ESANGO ZEIN LIBURU EROSTEN DIREN, BAIZIK ETA AMAIERARA ARTE IRAKURTZEN DIREN, AZPIMARRATU DEN, ESPERIENTZIA ELKAR BANATUA IZAN DEN..."

Dosdocerekin 12 urte daramatzazu kultura munduaren etorkizuneko bilakaera aurreratuz. Zer da gehien harritu zaituena?
12 urte daramatzagu aro digitala ulertzen saiatuz. Inork ez daukagu zer den iraungo duena eta zer den ke hutsa esaten digun bide-orria. Geldirik geratzea ez da aukera bat, negozio eta garapen aukerak galtzen dituzulako. 12 urte hauen hasiera industriaren aldetik ukapen osoa ikusi dut. Joera anglosaxoa zela zioten eta inoiz ez zela iritsiko, baina denbora gutxian ikusi da Internetek eraldaketa globala ekarri duela. Gaur jarrera aldaketa oso positiboa dago, gehiago enpresa txikietan, argitaletxeetan eta liburutegietan, talde handietan baino.

Aipa ditzagun datozen urteetan kultura kontsumoari eragingo dioten bi edo hiru teknologia edo joera.
Lehena adimen artifiziala da. Gurekin 40 urte daraman arren, ez genituen errealitate izateko

osagaiak: afinitate eta joera pertsonalen, aisialdi eta kontsumoaren gaineko datuen sartzeko masiboa eta horiek konputatzeko ahalmena. Irakurle bezala, guk nahi duguna da ez bakarrik liburu bat erosi dugun esango digun algoritmo bat, baizik eta azkeneraino irakurri dugu, azpimarratua edo idatzia izan den, esperientzia elkar banatu den... Tekstum bezalako teknologien iritsiera ikusten ari gara, liburu saltzaileei, liburu-zainei, irakurleei eta argitaratzaileei haien afinitateei gehiago doitzen diren liburuak aurkitzea lagunduz. Bestalde, irakurle komunitateen finkatzea aipatuko nuke. Denbora daramate gure artean, funtsean mundu anglosaxoian Goodreads-en bitartez. Bazirudien gure artean ez zuela arrakastarik izango, baina azken hilabeteetan gaztelera hitz egiten den herrialdeetan El Placer de la Lectura, Qué libro leo edo Librotea bezalako plataformak ikusten ari ditugu.

Iragarpen guztietan adimen artifiziala aipatzen da etorkizuneko gakoetako bat bezala. Zein paper jokatuko du eta nola elkartuko da gizakiarekin kultura sektorean?
Galdera handia zera da: robota gizakia baino adimentsuagoa izango ote da? Ni egunez egun ziurrago nago baietz. Gizakiak bere historian zehar frogatu du nahiko urria dela erabakiak hartzerako orduna, makina hotza, kalkulatzailea eta zorrotza den bitartean, eta ez du lorik egiten. Susmatzen duguna baino lehen ikusiko dugu makina bere algoritmo propioa autoprogramatzeko gai izango dela. Bizitza egokitu zaigun aro honetan, gizakiak makina adimentsuarekin elkar biziko da eta erronka izango da modu etiko eta jasangarri batean, makinak gu pertsona moduan hobetzen laguntzea, gu makinen maskota bihurturik amaitu gabe.

Egileek, argitaratzaileek, liburu saltzaileek eta liburuzaingek haien estrategiak berritzen ari al dira?
Jokaera aldaketa bat egon da, baina ez bezain behar beste. Krisialdi madarikatu honen ondorioz, liburuaren munduko aktore askok dirua zegoenean pasatzen uzten zituzten erabaki asko hartu behar izan dute. Teknologia guzti hauetara oraindik gehiago gerturatu behar ko lukete, entzuleria gehiagotara iristea ahalbidetuko dietela ohartuko baitira. Liburu digitala munduko edozein tokitara esportatzen da klik bakar batekin, zure publiko irakurlearekin zuzenean hitz egitea ahalbidetzen dizu, zein zati izan diren atseginagoak jakitea ahalbidetzen dizu... Argitaratzaileari kostuak murriztea ahalbidetzen dio eta, ondorioz, egile berrien aldeko apustua egitea. Eta teknologia hauek paper formatua saltzen laguntzen dute ere.



**LUIS
COLLADO**

**GOOGLE PLAY BOOKSEN ZUZENDARIA
ESPAINIAN ETA PORTUGALEN**

 @luiscollado

NON ARITUKO DA?

Las librerías del futuro, ¿dónde compraremos y dónde leeremos?

12:00-13:00

Luis Collado, Madrilgo Autónoma Unibertsitatean Ekonomia eta Enpresa Zientzietan Lizentziaduna eta Marketingean Masterra, Espainian, Portugalen eta Ekialde Ertainean Google Play Booksen Zuzendaria da. Luisek 10 urte baino gehiagoko esperientzia du finantza sektorean eta marketing aholkularitzan, eta 15 urte baino gehiago argitalpen munduan hainbat lan burutuz. Argitalpen industria barruan, Luisek Pearson Educaciónen egin zuen lan Unibertsitate eta Lanbide Alorreko Zuzendari Orokorra izanik, ondoren McGraw-Hill Españan Promozio eta Marketing Zuzendari izendatuz, Google iritsi aurretik. Argitalpen munduarekiko grin hori galdu gabe, Luisek gure herrialdean egiten den argitalpen edukien ekoizpena Internetera sartzeko helburua du Google, mota orotarikoa, baliabide berri honetan ahalik eta ikusgarritasun handiena emateko helburuz, kulturak eta liburuak duen garrantzia dela eta. Luisentzat liburuak, arrazoi profesionala izateaz gain, aukera pertsonala dira: besteen bizitzari buruz, historiari buruz eta bizitzeko esperientziari buruz irakurtzen edo misterio eleberri on baten arrazoiak eta planteamendua aurkituz.

"JABETZA INTELEKTUALAREN LEGEA KULTURA DIGITALERA SARTZEKO ELEMENTU MURRIZTAILEA DA GAUR. ATZERATURIK DOA EDUKIEN HEDAKETARAKO, EROSKETARAKO, BANAKETARAKO EDO KONTSUMORAKO TEKNOLOGIA AURRERAPENEEKIKO"

Nolakoak izango dira etorkizuneko liburu dendak?

Jakingo banu, ez nintzateke hemen egongo, etorkizun horretarako lanean egongo nintzateke. Argi dagoela dirudiena da haien funtsezko papera jokatzen jarraituko dutela, orain liburu denda tradizionalak edo online liburu denda berriek egiten duten moduan: liburuek berezko duten kultura, ezaguerak, aisialdia, formatuak axola gabe, irakurle potentzial gehiagori hurbilduz, bere erostea eta irakurketa erraztuz eta gehien interesatu diezaiokeena gomendatuz. Pertsonak (liburu saltzaileek) beti egin izan duten moduan eta makinek (algoritmoek) egiten hasi diren moduan.

Zer egin behar du gaur egungo irakurleak liburuaren mundua eraldatzen ari duen aldaketa olatu honi moldatzeko?

Irakurlea da errealtate berri honi moldatzen den lehena. Horietako askok jada egiten dugu: aukera digitalek eduki mota orori hurbiltzeko eta horiek une bakoitzean gehien komeni zaigun moduan kontsumitzeko aukerak eskaintzen dizkigute jada. Gauza ez da formatu tradizionalak formatu berriekekin aldatzea, baizik eta kasu bakoitzean eta erabilera bakoitzean gehien interesatzen, komeni, atsegin zaigun aukera erabiltzea. Industria bateko gainontzeko aktoreak dira errealtate berri bati hurbiltzen eta bere papera, ekarpena, errealtate berri horiei bere eskaintza egokitzen gehien berandutzen direnak.

Nola uste duzu egokitu behar-kolitzatekela Jabetza Intelektualaren Legea kultura kontsumoaren errealtate berriei?

JIL Internet agertu baino lehen garatu zen. Egiten diren aldaketek atzerapena daramate teknologia aurrerapenekiko eta edozein kultura eduki motaren hedatzerako, erosketarako, banaketarako eta/edo kontsumorako hauek eskaintzen dituzten aukera berriekiko. Honen ondorioz orain JIL alor digitalean kultura eskuratzeko elementu murriztailea da sorkuntzaren eta kultura kontsumoaren elementu babestaile eta dinamizatzailea baino. Kontzeptu asko (kopia pribatua esaterako) zeharo zaharkiturik daude eta besteak (streaming bidez sartzeko, multigailu / multiformatu sarrera) lehenbailehen sartu beharko lirateke.

Bidea egitea falta al zaigu Google bilatzaile moduan ikusten uzteko liburu argitaratzaile moduan ikusi ordez?

Google inoiz ez da izan ezta izango ere liburu argitaratzaile bat. Bere hedatzerako, banatzerako eta irakurle potentzia askoz gehiagori iristeko erraztailea baizik. Atzera begiratu eta azken urteetan dena nola aldatu den ikusten badugu, uste dut oraindik imajinatzeko gai ere ez garen askoz ere aldaketa gehiago ditugula aurretik.



**GEXAN
SORS**

**ELKAR-EKO MARKETING
ARDURADUNA**

 @GSM01

NON ARITUKO DA?

Las librerías del futuro, ¿dónde compraremos y dónde leeremos?

12:00-13:00

Gexan Sors Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean, Marketing eta Merkatuaren Segmentazioaren graduaduna Universitat Oberta de Catalunya, eta Nazioarteko Merkataritzan masterra du Deustuko Unibertsitatean. Jarduera oso ezberdinetan aritu da, bankatik, nekazal-erlikaduraren industrietatik eta alor industrialeraino. AMPO enpresaren Ekialde Ertaineko eta Indiako estrategia komertzialaz arduratu ondoren, marketing formakuntza jaso zuen eta Elkar Taldean lanera sartu zen.

"INDUSTRIA ASKOTAN GERTATZEN DEN MODUAN, LIBURU DENDAK TEKNOLOGIARI MOLDATU ETA ALIATU BEHARKO DUTE. ALDAKETAK ETENGABEA IZAN BEHAR DU, EZ DA IDEIA HANDIEN ZAIN EGON BEHAR, ESPERIMENTU TXIKIEK BALIO GEHIAGO EMATEN BAITUTE"

Non erosiko ditugu eta non irakurriko ditugu liburuak etorkizun hurbilean?

Liburuaren etorkizuna ziurgabea da eta azken urteetan ikusi dugun moduan argitaratu ziren baieztapen asko ez dira egia bihurtu. Eduki digitalaren kontsumo eredu aldaketa bat bizi izan dugu eta liburuak hori pairatu du ere. Krisialdiak ere sektore honi eragin dio. Hala ere, paperezko liburuak kontsumitzen jarraitzen da eta azken urtean salmenta zifrak hobetzen ikusi ditugu, nahiz eta oraindik goizegi izan onbideratzeaz hitzegiteko. Nahiz eta denok entzun digitala izan daitekeen guztia digitala izango dela, badirudi kontsumitzaileek ez dutela hain argi. Etorkizunean zaila da jakitea non erosiko ditugun edo non irakurriko ditugun liburuak, dena ari baita aldatzen, liburuak bera ere, bai eta irakurketa ohiturak ere. Geroz eta gehiago dira euskarri ezberdinak barne dituzten sorkuntzak eta geroz eta gehiago aldatzen dira irakurketa ohiturak.

Esaten da egungo belaunaldia dela gehien idazten era irakurtzen duena, baina ez orain arte eduki ditugun formatuetan. Hala ere, egia da Internetek, eCommercek eta edukiaren digitalizazioak paper garrantzitasua edukiko dutela eta beharrezkoa da argitaletxeak eta saltzaileak adi eta prest egotea aldaketa horietan paper garrantzitasua jokatzen jarraitzeko.

Liburu denda fisikoak berrazmatu behar al du digitalera makurtuta dagoen mundu batean?

Ezer baino lehen, berrinbertitu behar da eta izpiritu geldiezina eduki. Gaur egin ez dago errepikatu daitekeen eredu egonkorrik, orain arte gertatu den moduan. Esperimentatzeko eta merkatuaren beharrei moldatzeko ordua da. Aldaketak etengabea izan behar du, ez da ideia handien zain egon behar, esperimendu txikiek ideia handiek baino balio handiagoa ematen baitute (arraroa baita hauek gertatzea). Geroz eta gehiago,

orotariko salmenta kate handietan eta online salmentan ematen ari da eta honek liburutegiak espezializatu behar izatera darama. Aukera moduan ikusi beharra dago, salmenta mota hau bezero eredu leialago eta liburuaren munduarekiko afinitate handiagoa duen batena baita eta, aldi berean, liburu denda handiek bakarrik aurre egin diezaioketen logika komertzialeatik ihes egitea ahalbidetzen du.

Liburu saltzaile tradizional batek, digitalaren sartzea etsai moduan ikusi behar al du? Edo aliatu moduan?

Egia esateko, uste dut ez dela etsaia, baina lagun bat ezta ere. Digitala geratzeko etorri da eta gauza asko mugitu ditu, besteak beste liburu saltzailearen lan egiteko modua. Industria eta sektore askotan gertatzen den moduan, liburu dendak teknologiara moldatu eta harekin aliatu behar dira. Teknologia gure egunerokoaren zati bilakatu da eta horregatik ikusi behar

ditugu gure bezeroekin konektaturik jarraitzeko eskaintzen dizkigun aukerak. Hala ere, garrantzitsuena esentzia aurkitzea da, hau da, ezberdin egiten gaituena. Jakina dirudien arren, gaur egun arrunta dena, norma la dena kate handietan eta eCommercen zentralizatu da. Eta onar dezagun: oso ongi egiten dute. Haien aurka lehiatzea ezinezkoa da eta, horregatik, ezberdinak izan behar dugu eta garena oso ongi komunikatu. Posizionamendu egoki bat behar beharrezkoa da.

Irakurle bati, zein gainerako balio eman behar dio liburu denda fisiko batean erostea?

Liburu denda bakoitzak berari buruz hausnartu eta esperimendatu behar du. Jendeak nahi duena erakutsiko dizkion esperimendu txiki eta merkeak eta horrela norabide zuzenean bilakaera egin ahal izango du.



SILVIA CLEMARES

KOBO ESPAINIA ETA MEXIKO ARGITALPEN HARREMANETARAKO ZUZENDARIA

 @silviaclemares

NON ARITUKO DA?

Las librerías del futuro, ¿dónde compraremos y dónde leeremos?

12:00-13:00

Silvia Clemares web-ari, Interneti eta mundu digitalari loturiko ibilbide luzea du, eta liburuaren munduan bizi dugun eraldaketa sozial eta kultural handiaren esparruan iritzi liderra da. Kobon lan egin aurretik, Grup62-ko (Grupo Planeta) web plataforma, online marketingerako hasierako estrategia eta argitalpen digital negozio eredua ezarri zituen. Profesionalki Frantzia hezia, Antropologian lizentziaduna da Bartzelonako Unibertsitatean eta MA lortu zuen Mexiko Berriko Unibertsitatean (AEB). UOCeko Argitalpen Digital Masterrean laguntzen du.

"AUTOARGITALPENAK ESPAINIAN BENETAKO BOOM BAT BIZI DU. IRAKURLE KOPURU HANDIENARI IRISTEKO, EGILEEK OSO PROFESIONALAK IZAN BEHAR DUTE, ORAIN ARGITARATZAILA LANBIDEAREN ESKUMENAK BERE EGIN BEHAR BAITITUZTE"

Zein da Espainian autoargitalpenaren gaur egungo argazkia?

Azken urteotan, eta beste herrialde askotan bezala, autoargitalpenak Espainian benetako boom bat bizi du. Autoargitaratzen diren ebooken zati handi bat fikzio ebookak dira eta, genero literaturaren esparruan, eleberri erromantikoa, polizia eleberria, zientzia fikzioa eta fantasia gailentzen dira. Kobo, bere autoargitalpen plataformaren bitartez, Kobo Writing Life alegia, ebooken autoargitalpenerako esparruan dagoen aktoreetako bat da. Kobo Writing Life (es.kobo.com/writinglife) gazteleraz eskuragarri dago egile eta argitaletxe independenteentzako eta, Koborekin, egileek haien ebookak munduko 190 herrialdetan argitaratu eta saldu ditzakete, Espainia eta Mexiko barne.

Nola ikusten duzu liburu elektronikoan salneurri dinamikoei buruzko eztabaida?

Liburu digital baten salneurria aldatzea eta doitzea oso erraza eta azkarra da. Ikusgarritasuna handitzeko promozioak baliabide aparta direla kontutan hartuz, egileek irakurle berriek haien ebookak ezagutu ahal izateko erabili beharko lituzkete. Ebookak erostearen hazkunde handiko aldietan, adibidez Amaren Eguna, Liburuaren Eguna, edo Errege Magoen Eguna, ohikoa da promozio bereziak antolatzea. Beste aukera bat, aldi jakin batean zehar promozio salneurri bat ezartzea da nobedade bat plazaratzeko. Laburbilduz, promozioaren inguruan aukerak oso anitzak dira. Funtsezkoa salneurrien promozio estrategia bat pentsatzea da, promozioa komunikatzea irakurleek ezagutu dezaten, emaitzak monitorizatzea eta estrategia emaitzen arabera doitzen joatea.

Argitalpen zehaztasun gabezia aro honetan, zein izan beharko luke egileentzako ibilbide orria haien lanak argitaratzean?

Irakurle kopuru handienari iritsi nahi duten egileek oso profesionalak izan behar dute. Autoargitalpenean, egilea bere argitaratzailea da eta argitaratzaile lanbidearenak diren eskumenak bere egin behar ditu:

- a) Zuzentzaile profesional batek berrikusi duen kalitatezko testu bat proposatu.
- b) Diseinatzaile profesional batek diseinaturiko azal erakargarri bat izan.
- c) Ebooka komunikazio plan estrategiko batekin promozionatu eta irakurleekin elkarrekin arituz.
- d) Prest egon eta onartu irakurleen aldetik ebookaren arrera oso negatiboa izan daitekeela, are gehiago komentarioak lausotzeko argitaratzailearen filtrorik gabe.
- e) Idazketarekiko grina bistaz ez galdu eta lehentasuna eman.
- f) Arrazoizko helburuak finkatu eta berarekin daramatzen as-

pektu positiboak ulertuz autoargitaratu: askatasuna, esku-bideen eta sormen prozesuaren gaineko kontrola, irakurleekin kontaktu zuzena eta abar.



**MARC
SANTANDREU**

TEKSTUM SOLUTIONSEKO
SORTZAILE ETA CEO

@Tekstum

NON ARITUKO DA?

Las librerías del futuro, ¿dónde compraremos y dónde leeremos?

12:00-13:00

Tekstum Solutions argitalpen sektorean fokatua dagoen startu-paren sortzaile eta CEO, Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza (ADE) lizentziatura egin zuen Bartzelonako Unibertsitatean eta Kazetaritza Pompeu Fabra Unibertsitatean. Bere ibilbide profesionala finantza sektorean hasi zen non zortzi urtez baino gehiagoz aritu zen ardura kargu ezberdinetan. Ondoren bere ibilbidea kazetaritzara hurbildu zen, nazio mailako eta nazioarteko komunikabide ezberdinetan lan eginez, hala nola Bloomberg News TV edo Televisió de Catalunya (TV3). Beranduago bere jardura profesionala liburuaren munduan fokatu zen Author Solutions argitaletxe iparramerikarrean lan eginez Bartzelonara itzuli aurretik Tekstum startupa sortuz 2014ean.

"GAUR EGUN OBRA BATEK BERE IRAKURLEEI TRANSMITITZEN DIZKION SENTIMENDUA, EMOZIOAK ETA SENTIPENAK AURKITU DAITEZKE, ETA INFORMAZIO KUALITATIBO GUZTI HONEK ARGITALPEN EKOIZPEN EREDUA ESKAERAN FOKATZEA AHALBIDETZEN DU"

Nola lagun gaitzake teknologia urtero argitaratzen den izenburu jario erraldoia ordenatzen?

Gaur irakurlea benetako eduki pareta baten aurka egiten du eta, zalantzari gabe, teknologia-aren erabilerak liburu jario erral-ldoi hori ordenatzen eta kudeatzen lagun zaitzake. Bide bat obrak kategorizatze modu berriak bilatzea da. Adibidez, Tekstumen algoritmoak irakurleek esperimendu dituzten sentimendu eta emozioen arabera katalogatzen du liburu bat. Telesail eta pelikulen munduan, Netflixek 76.000 mikrogenero baino gehiagotan kategorizatu ditu bere izenburuak. Teknologia-aren laguntzarekin mikrosegmentazio handiagoa bilatu behar dugu eta kategorizazio tradizio-naletan ez geratu. Irakurleari bilaketa lagundu nitxo pertsona-leko liburuak eta askoz ere per-tsonalizatuagoak eta zehatzagoak diren gomendioak eskainiz.

Benetan neur daiteke liburu baten irakurketak eragiten duen emozioa matematika formulen bidez?

Datu bolumen handietan oi-narritzen diren algoritmo konple-xuen eta Adimen Artifiziala, Min-tzaira Naturalaren Prozesamen-duaren bere adarrean, konbina-tuz, obra batek bere irakurleei transmititzen dizkion sentimen-dua, emozioak eta sententzioak aurkitu daitezke. Hori posible izateko iritzien, komentarioen eta erreseinen analisi zientifikoa egiten da. Informazio kualitatibo guzti honen analisiak argitalpen ekoizpen eredu eskaeran fokatzea ahalbidetzen du, horrek dakartzan abantaila. Hori burutzeko irakurlea nor den, zer sentitzen duen, zer pentsatzen duen, bere irakurketa espe-rientzia zein den eta abar eza-gutzea beharrezkoa da. Irakur-keta hori da zehazki: sentimen-duak, emozioak, ñabardurak, subjektibitatea...

Algoritmoek literatura kritiko baten iritzia ordezkatu dezake-te?

Osagarriak izan daitezke. Adu-baten gomendioa garrantzitsua da, baina milaka irakurle-ritziak ez du garrantzia gutxiago-rik. Iritzi kopuru handi bat anali-zatzeak liburuaren munduaren ezagutza sakona eta zeharkakoa lortzea ahalbidetzen du. Zalan-tzarik gabe, big data literatura gomendio askoz ere zehatzagoak eta pertsonalizatuagoak egiten lagunduko du irakurleen gustu eta lehentasunen ezagutza han-diagoa direla eta. musikaren mundua ikusten badugu, ikusiko dugu musika kritikoek haien paptera mantendu arren, geroz eta gehiago algoritmoek prota-gonismo handiagoa dutela go-mendioetan. Adibidez, Spotify-ren Discover Weekly arrakastat-sua, antzeko gustuak dituzten erabiltzaileen entzute ohiturak aldatzen dituen algoritmo eraginkor batek sortzen duen pertsonalizaturiko erreproduktio-zerrenda bat da, zehaztasun handiko gomendioak egiteko.

Zein da zure 2020 iragarpena literatura gomendatzeko siste-metan big dataren pisuari bu-ruz?

Pisua geroz eta handiagoa izango da. Big data ekonomia sektore askotan inbertsio lehentasun moduan finkatzen ari da eta joera izango da datozen ur-teetan. Kultura sektorea eta argitalpenarena zehazki ez dira salbuespenak izango nahiz eta ziurrenik ez diren lehenak izan-go. Ikerketa ugari adierazten dutenez eCommerce enpresek milaka milioi irabazteari uzten diote haien bezeroen datu se-mantikoak, komentarioak eta erreseinak zuzenki ez anali-zatzeagatik. Argitalpen industria-ren kasuan, irakurle kolektiboak Sarean sortzen duten datu kopu-ru geroz eta handiagoa apro-betxatu behar du. Big data ziurrenik goitik behera eraldatu-ko du argitalpen industria bai eta gomendio sistemak ere datozen urteetan. Nire iritziz, big data, machine learning eta erabiltzai-learen esperientzia izango dira etorkizuneko hiru gako nagusiak.



**TERESA
M. PECES**

**LA LECTORA FUTURAKO ARGITALPEN
ZUZENDARIA**

 @tpeces

NON ARITUKO DA?

Las librerías del futuro, ¿dónde compraremos y dónde leeremos?

12:00-13:00

Teresa M. Pecesek, Informazioaren Zientzietan lizentziaduna Madrilgo Complutense Unibertsitatean, El Mundo egunkariko 'Campus' Hezkuntza eranskinean eta espezializaturiko aldizkarietan hasi zuen bere ibilbide profesionala. Bere jardura nagusia liburuaren sektore profesionalan izan da, 20 urtez baino gehiagoz DELIBROS aldizkaria zuzendu baitu. Honek, liburuaren industriaren bilakaeraren gainean informaturik egotea ahalbidetu dio bai eta bere ezagutza hitzaldietan, mintegietan eta ikastaroetan elkar banatzea ere. Epaimahai ezberdinetan egona da ere, hala nola Edición Unibersitarian, UNEk deitua, eta Kultura Sari Nazionaletan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarenak (Argitalpen Lan Hoberena, Poseia eta azkena, urte honetan bertan, Kultura Kazetaritzakoa). Bi Master burutu ditu, bata Kazetaritza Digitalean eta bestea Korporazio Komunikazioa eta Sare Sozialetan, biak Alcaláko Unibertsitatean.

"MAREMAGNUM DIGITALEAN OSO ZAILA DA IKUSGARRI EGITEA, ETA EZ DEZAGUN ESAN NOBEDADE MAHAIAN, AZAL ERAKARGARRIAK, MARKETING EKINTZAK, YOUTUBEN INFLUENCERSEN BILAKETA (BOOKTUBERAK)..."

Zein toki bete nahi du La lectora futurak sektoreko profesionalen topagune moduan?

Aurkezpenetan liburuaren munduaren zentro moduan definitu ginenean hala egin genuen gure helburua gaztelerazko liburuari eta irakurketari buruzko informazio guztia zentralizatzea delako, erreferentzia puntua izatea bai maila profesionalen bai herri mailan ere; liburuan eta irakurketan interesa duen orok La lectora futuran bilatzen duen hori aurkitu ahal izatea: berriak, txostenak, jarduerak, ikastaroak, profesionalak, beste irakurleak... dena. Erreferente izan nahi dugu Latinoamerikan eta Espainian.

Zein da liburuaren profesionalak kezkutzen dituen erronka nagusia une hauetan?

Liburuaren profesionalak erronka ugari eiten diote aurre une hauetan: horietan lehena pirateria da, hori lehenbailehen konpondu beharra dago eta horrek sortzaileengan eta liburuaren industrian eragiten duen minaren gainean herritarrak

kontzientziatu. Beste erronka bat, berritzaileagoa, autoargitalpenaren joera geroz eta handiagoa da, aukera teknologikoek sortzaileak esparru digitalera sartzea lagundu dute, liburuaren ohiko kanaletatik kanpo, hain salneurri lehiakorrek in ia ezinezkoa dela berdintzea. Hirugarren erronka bat ikusgarritasuna izango litzateke, maremagnum digitalean oso zaila da ikusgarri egitea, eta ez dezagun esan nobedade mahaian, azal erakargarriak, marketing ekintzak, YouTuben influencersen bilaketa (Booktuberak)... Eta erronka handia, denen gainetik, irakurle gehiago lortzea da, bere publikoa leial bihurtzea.

Proiektu honetan zure esperimentziaren arabera, lankidetz giroa al dago aktore ezberdinen artea denon onurarako izango den etorkizun baterantz aurrera egiteko?

Orain gutxi gorabehera urte bat liburuaren sustapenerako eta irakurketarako plan integral bat sortu zen Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari Espainia-

ko Liburuaren Ganberen Elkar-teak aurkeztua. Elkar-te honetan Espainiako Argitaratzaile Gremioen Federazioa, Liburu den-den Gremio eta Elkar-teen Espainiako Konfederazioa, Edizioen Banatzaileen Elkar-te Nazionalen Federazioa eta Industria Grafikoaren Espainiako Federazioa zeuden. Plan horretan, irakurketa sustatzea, liburuaren inguruko zerga neurrien berrikusketa, jabetza intelektual babesteko ekintzak eta liburu salmentan jartzearen inguruko gaiak lantzen ziren, edo proposatzen ziren, hobe esanda. Aspektu zehatzetan badago erakunde mailan lankidetz, denon onurarako norabide berean egin behar dugu... Baina egia da ere azken urteetan negozio eredu berriak sortu direla, bai argitalpenean bai banatzean edo liburuaren salmentan, erakunde egituretatik kanpo mantenduz.

Topaketa eta lankidetz digitaleko foro hauen sorrerarekin, liburu azokak desagertuko dira?

Liburuaren Azoka profesionalak jendarteari geroz eta irekiagoak dira eta profesionalak beste argitaratzaileek zer eiten ari duten ikusteko balio die, edo argitalpen formula berriak proposatzeko. Gauza bat gaurkotatzen gaia eztabaidatzea da eta beste bat konpetentzia analizatzea. Bi argitalpen formulak bateragarriak dira eta, noski, herri mailan liburuak irakurleei hurbiltzeak beti du eragin positiboa. Topaketa eta lankidetz foroek bere garrantzia haiengan beraian dute eta ez lukete azoka baten markoan egon behar, agian egun batzuk aurretik... Azokak liburuak eta egileak aditzera emateko dira, edo argitaratzaile ezezagun batekin negozio profesionalak egiteko, bere obra ezagutu izanagatik interesa eduki dezakeelako, egin behar dena, haiekiko interesa erakartzea da.



ALICIA GONZÁLEZ STERLING

BOOKBANK LITERATURA
AGENTZIAKO ZUZENDARIA

 @bookbankagency

NON ARITUKO DA?

Las diferentes puertas de entrada en el mundo de la edición
16:15-17:15

Alicia González Sterling Madriden jaioa 1956an. Geografia eta Historian lizentziaduna, 1996an jarri zen Bookbank Literatura Agentziaren buru. 20 urtez haien liburuak gazteleraz argitaratzeko argitaletxe eta agentzia atzerritarren ordezkaritza lanean aritua bai eta egile espainiarrak ordezkatzuz munduz osoan, haien artean Matilde Asensi, Emilio Calderón eta Montero Glez.

"BATZUETAN AUTOEDIZIOA DA IDAZLE BATI GERATZEN ZAION AZKEN IRTENBIDEA MERKATU SATURATU BATEN AURREAN; ASKORI ARGITALPEN MUNDURA SARTZEA AHALBIDETU DIO"

Panorama digital berrian, egile edizioaren munduan sartzeko literatura agentearen garrantzia mantentzen al da?

Baietz uste dut. Gure kasuan, agentziak harreman berezia du Amazon, Google edo Apple bezalako plataforma digitalekin bere egileak promozionatzea lortzeko. Agentearen papera liburu bati argitaletxea aurkitzea bakarrik ez dela ahaztu gabe, baizik eta obren gaineko eta egileen karreraren gaineko coaching profesional lana ere. Gainera, egileek paperaren munduan egoten jarraitu nahi dute, oraingo gutxienez.

Autoedizioa mehatxua al da zure alorreko profesionalentzat?

Ez. autoedizioa batzuetan idazle bati geratzen zaion azken irtenbidea da eskaintzen duten guztia xurgatu ezin dezakeen merkatu saturatu baten aurrean. Egile askorentzako hasiera oso baliotsua izan da argitalpen mundura sartu ahal izateko.

Zer egile motak kontratatzen du agente bat?

Egile mota guztiek. Ez dut uste agente bat kontratatzen duen egile mota definitu bat dagoenik. Gainera, nire jarduerari buruz egiten denean femeni-noaren erabilerak harritzen nau. Egia da gehiengoa emakumeak direla, baina badaude gizonak ere. Eta Espainiatik kanpo literatura agentzietan emakume baino gizon gehiago dagoela uste dut.

Ingurune digital berrian jabego intelektualaren legea berrikusi beharko litzatekela uste al duzu?

Zeharo. Nire ustez legeak errealitatearen oso atzetik daude gure mundu digital berrian eta ez bakarrik kulturari dagokionez, non egoera desastre hutsa den, baizik eta esparru guztietan.



FRANCISCO JAVIER IRAZOKI

IDAZLEA

 @fjirazoki

PARTICIPA EN...

Las diferentes puertas de entrada en el mundo de la edición

16:15-17:15 horas

Irazoki (Lesaka, Nafarroa, 1954ko urriak 21), poeta eta AEE/EIEko bazkide hau musika kazetaria izan zen Madrilen. Expres (Erwin Mauchen zuzendaritzapean) eta El Musiquero (José María Iñigok zuzendua) bezalako aldizkarietan aritzen zen lan-kidetzan. CLOCen kide izan zen, idazle surrealista taldea alegia. 1993tik Parisen bizi da, non musika ikasketak burutu dituen: Armonia eta Konposizioa, Musikaren Historia eta abar. Idazle bezala, argitaratutako bere lehen poema bildumak Argoma (Lizarra, 1980) eta segados (Euskal Herriko Unibertsitatea; Leioa, 1992) izan ziren, ordura arte idatzitako hiru bertso liburukik osatuz: Argoma (1976-1980), Desiertos para Hades (1982-1988) eta Miniatura infinita (1989-1990). Beranduago, Irazokik Del camino plazaratu zuen (Javier Arbilla Editor; Iruñea, 2002, Antonio Arenal argazkiekin), Hombres intermitentes prosa poema liburua (Hiperión; Madril, 2006), La nota rota (Hiperión; Madril, 2009), oso garai anitzetako musikariren berrogeita hamar azalpen biografiko, Retrato de un hilo bertso poema liburua (Hiperión; Madril, 2013) eta De desaparecidos prosa poema liburua (Hiperión; Madril, 2015)...

[Biografia osoa: <http://ow.ly/8UDY302rRaw>]

"INTERNETEK POESIAREN HEDATZEA LAGUNTZEN DU. MUGAK ETA MANTSOTASUNA IA BEREHALAKOA DEN KOMUNIKAZIO BATEK GARBITU DITU. LITERATURA GENERO MINORITARIOEK OIHARTZUN HANDIAGOA LORTZEN DUTE. POESIAK BERE KOBAZULO FINA UTZI DU"

Fikzio prosak bere lekua egin du jada irakurketa digitalaren munduan. Etorkizunik al du poesiak euskarri berrietan?
Interneten fribolitateak iraintzen zituen poeta bat eza-gutu nuen. Bidegabea iruditu zitzaidan. Esan nion: Internetek poesiaren hedatzea laguntzen du. Egunero frogatzen dut. Euskarri digitalari esker, idazle argentinar, txiletar, kolonbiarrerekin harremanetan jarri naiz. Mugak eta posta mantsotasuna ia berehalakoa den komunikazio batek garbitu ditu. Literatura genero minoritarioek oihartzun handiagoa lortzen dute, bere zirrikituetatik irteten dira. Poesiak bere kobazulo fina abandonatu du.

Irakurketa tresna berriek, idatziko hizkuntza moduari edo kontakizunaren egiturari eragiten diote?
Erabiltzailearen araberakoa da. Hizkuntzarekiko arduratsua den idazleak bere lan arretatsuarekin jarraituko du. Inongo moda ez da gailenduko bere kalitatea-rekiko konpromisoaren gainetik.

Egile bezala, nola bizi dituzu argitalpen sektorearen al-daketa guzti hauek?
Momentuz, ez dute eraginik niregan. 2006an Hiperióneko ateak ireki zizkidaten, eta argitaletxeak nire azken lau liburua argitaratu ditu. Errespetuz osoz tratatu naute. Honek asko preziatzen dudana osagai bat du barne: hurbiltasun maitekorra.

Zein paper jokatzeko du erre-seina egileak edo literatura kritikoak irakurketa gomendatzeko azken metodoetan?
Iruditzen zait gutxinaka gutxinaka literatura kritikoaren iritziek indarra galtzen ari dutela. Ora-indik ere aintzat hartzen da kultura eranskin nagusietako batean idazten badu. Etorkizuneko premisa bat: kritikek irakurlea gidatzea nahi badugu eta serio-tasunez idatzirik egotea nahi badugu, erreseina egileak denbora beharko du bai eta bere lanagatik ordainsari zuzen bat jaso.



FERNANDO TARANCÓN

ADITUA ETA KOMIKI
ARGITARATZAILEREA

 @ftarancon

NON ARITUKO DA?

Las diferentes puertas de entrada en el mundo de la edición

16:15-17:15

Fernando Tarancón, Bilbon jaioa 1971an, Kazetaritzan lizentziaduna UPV/EHUn. 1994an Joker komikian espezializaturiko liburu denda sortu zuen, eta 2001ean Astiberri argitaletxea, bertan lanean jarraitzen duelarik bere kide eta lagunekin. Irakaskuntzan aritua da eta hitzaldi zein mahai inguru ezberdinetan parte hartu du. Radio Euskadirekin lankidetzan aritu ohi da. Gainera Zona Cómicen (komikian espezializaturiko liburu denden elkarte) zuzendaritza batzordeko kidea da bai eta CEGALEkoa ere, Liburu Saltzaileen Elkarte eta Gremioen Espainiako Konfederazioa alegia (Confederación Española de Gremios y Asociaciones de Libreros).

"LIBURU DENDEK ADIMENEZ ERABILI BEHAR DITUZTE GAUR EGUNGO KOMUNIKAZIO TRESNAK BEZERO ERREAL EDO POTENTZIALEKIN KONEKTATZEKO BAI ETA BESTE LIBURU DENDEKIN ETA LIBURUAREN KATEKO BESTE KIDEEKIN"

Nola moldatzen da komikia edo eleberrir grafikoa digitale-ra?

Moldaketa teknika erraza da, nahiz eta bere izaera grafikoa dela eta, ez juxtu liburu digitalaren ohiko estandarren bidez (hobe PDF ePub baino). Hala ere, iruditzen zait irakurketa esperientziak gehiago galtzen duela paperetik digitalera aldatzean beste liburu motetan baino, irudidun liburuetan edo arte liburuetan gertatzen den bezala, adibidez.

Zer ari da gaizki egiten komikiak literaturak, zinemak edo musikak kulturaren mundu barruan duen duten estatua ez lortzeko?

Nire ustez galdera bestelakoa da, zer egiten ari da ongi gutxina gutxinaka komikiak sartuta zegoen geto parakulturala abandonatzen egoteko eta bere normalizaziora geroz eta gehiago hurbiltzeko. Nola egon de generoa estigmatizatua haur mundukoa eta subkultural modukotzat joz ia bere historia guztian zehar elkarriketa honen mugak gainditzen ditu bai eta elkarriketatuen gaitasunak ere.

Liburu saltzaile bezala, zein moldaketa uste duzu egin beharko luketela liburu dende aro digital honetan?

Liburu dende zein mundutan bizi diren jakin behar dute eta gaur egungo komunikazio tresnak adimenez erabili, eta zentzu horretan batzuek oso ongi ari dute egiten. Ez dut uste zure sare sozialetako jarraitzaile kopurua handitzen lortzea denik hainbeste, horiek zure bezero erreal edo potentzialekin bai eta beste liburu dendeekin eta liburuaren kateko beste kideekin komunikazio eramaile moduan erabiltzea baino.

Argitaratzaile bezala, nola irits daiteke egile bat zureganaino? Bere eskuizkribua zuzenean bidaliz, literatura agente baten bitartez...? Zeintzuk dira egile berriak aurkitzeko zuen formulak?

Egileek oso argi dute nola iristari zaien proposamenak: oso erraza da dossier bat pdf edo eposta bidez bidaltzea. Zentzu horretan, oraintxe bertan gauzak nahiko errazak dira. Lanak horrela iristen zaizkigu egileetatik orokorrean, nahiz eta batzuetan literatura agentzien bidez ere.



ANTONIO DE MARCO

EBOOKEN KUDEAKETA ETA
PROMOZIOAN ESPEZIALISTA

@Placer_Lectura

NON ARITUKO DA?

Las diferentes puertas de entrada en el mundo de la edición
16:15-17:15

Antonio Marco Espainian e-booken garapenean profesional aitzindaria da. Amazon/Kindle Espainian ezartzearen arduraduna izan zen Senior Manager Kindle eta Leer-eko Edukien Presidenteorde moduan. Gaur egun elplacerdelalectura.com-eko Zuzendari Komertzial eta Negozio Garapenerakoa da, irakurle-liburu harremanetarako komunitate nagusia alegia, bai eta AM Consultores Editorialeseko sozioa, non egile eta plataforma digitalean auto argitalpen proiektu anitzetan lankidetzan aritzen den. Argitalpen kudeatzailea izan da, sektorean 25 urte baino gehiagoko esperientziarekin, bai Trade, STM et Textbook-en, Espainian, Latinoamerikan eta AEBn, bai Zuzendari Orokor moduan McGraw-Hill Iberoamerican, Grijalbo/Mondadorin, Grupo Santillanan (Txile eta AEB) eta argitalpenari, salmentei eta nazioarteko marketingari loturiko beste ardurak Ediciones B eta Harper Collinsen, Theibron argitalpen aholkularia eta ekintzailea. Bere ibilbideak Madrilgo Autonomia Unibertsitatean eta Alcalá de Henaresko Unibertsitatean Edizio Masterreko irakasle postua du ere barne. Espacio Texturaseko edizio tallerretan hizlaria eta aldizkarian hainbat artikulua. Ominprom 2014 (Mexiko) txostenean parte hartzailea, Filen gonbidatua Unibertsitate eta Akademia Edizioaren Nazioarteko Foroan hizlari moduan (Foro Internacional de la Edición Unibersitaria y Académica).

"LA PROFESIONALIZACIÓN DE LA AUTOPUBLICACIÓN ESTÁ HACIENDO QUE CONVIVAN DOS TIPOS DE MERCADOS: UNO DOMINADO POR LOS GRANDES EDITORES Y OTRO POR AMAZON, CON SUS AUTORES AUTOPUBLICADOS"

Zertan datza eduki digitalen promozioan espezialista baten lana?

Gure lana, autoargitaratzen duten egileek sare sozialetan, blogetan, online dendetan eta abar egiten dituzten promozio ekintzak profesionalizatzen laguntzea da. Aholkularitza, prozesuak eta tresnak ematen dizkiegu salmentetan bai arrakasta bai ikusgarritasuna lortzeko. Azkenean, merkatuaren zati garrantzitsu hori profesionalizatzean datza, besterik ez.

Nola egin beharko luke egile batek bere izenburua Amazoneko lehen postuetara eramateko?

Nahitaezkoak diren bi gauzak hauek dira: ongi idatzitako liburu bat eta pazientzia. Gainera, beharrezkoa da profesionalen laguntza edizioaren eta promozioaren prozesu osoan. Eta zergatik ez esan! Lan handia eta zorte pixka bat.

Argitalpen tradizionalen 25 urteko esperientzia duen zu bezalako profesional batek, nola egin dio aurre garbiki digitala den ingurura trantsizioari?

Ni argitalpen sektorean 1989an hasi nintzen Txilen oso testuinguru ezberdinean. Ez genuen ordenagailurik liburuak egiteko ez eta administratzearako, artisau lana zen gehienbat. Aldatu ez diren bi gauza daude eta ez aldatzea espero dut: argitaratzen denaren kalitatea eta irakurtzeko grina, formatua edo erosketa kanala dena delakoa ere. Argitalpen munduarentzako une zoragarria bizi dugu, jende askok nahasten ari dituen erabateko aldaketak ematen ari direlako. Nire ikuspuntutik garrantzitsuak diren hiru fenomeno daude: edukiak erosteko modu ezberdina, komunikazioan modu ezberdinen elkarrekin-tza (bideoa, audioa eta abar) eta irakurle mota berri baten existentzia. Formatuen eztabaia da zeharo txikiagoa da.

Nola ikusten duzu Espainian autoargitalpenaren etorkizuna?

Autoargitalpenaren etorkizuna hemen dago jada. Mundu guztiak hitz egiten du hari buruz, baina inork ez du ikusi nahi. Uste dut argitaletxe tradizional bakar batek ere ez diola duen garrantzia ematen. Une hauetan, estatistikek diotena baino autoargitaratutako liburu gehiago saltzen dira, eta bide batez, estatistika horiek ez dituzte datu horiek modu fidagarrian ematen. Argitalpen mota honen profesionalizazioak bi merkatu mota elkarbizitzan egotea eragin du: bata argitaletxe handien menpe eta bestea Amazonen menpe, bere autoargitaratutako egileekin. Azken honek era esponenzialean hazten jarraituko du, erabiltzeko geroz eta errazagoak izango baitira plataforma hauek eta haien hazteko gaitasuna ikaragarria da. Argitalpen tradizionalaren hazkundea argitaratu dezakeen izenburu kopuruak mugatzen du eta autoargitalpenak ez du mugarik. Aldaketa garrantzitsuak ikusiko ditugu bidetik.



**FERNANDO
SAVATER**

**FILOSOFO ETA
SAIAKERA IDAZLEA**

 @fernandosavater

NON ARITUKO DA?

Tertulia a dos con Fernando Savater
17:30-18:30

Fernando Savater filosofia irakaslea izan da hogeita hamar urtez baino gehiagoz. Berrogeita hamar obra baino gehiago idatzi ditu politika, literatura eta filosofia saiakeren, kontaketen eta antzerkien artean, bai eta ehunka artikulua Espainiako eta atzerriko prentsan. Bere liburuetako batzuk hogei hizkuntza baino gehiagotara itzuli dira. Honoris causa doktoretza ugariren jabe da Espainia, Europa eta Amerikako hainbat unibertsitatek emanak, bai eta kondekorazio ugari, haien artean Espainiako Konstituzio Merituaren Ordena, Arrano Aztekaren Gurutze Handia eta Chevalier des Arts et Lettres da Frantziako Gobernuaren eskutik. Ética para Amador, Política para Amador eta Las preguntas de la vida liburuekin filosofia gazteei hurbiltzen saiatu da benetako best sellerak bilakatuz.

"SAIAKERA EZ DA TXIO BATERA DOITZEN. ARGUDIATZE FILOSOFIKOAK TOKIA BEHAR DU, NAHIZ ETA INGURU DIGITALAK ELKARRIZKETA LAGUNDU, ETA HORI DAGOEN GAUZARIK FILOSOFIKOENA DA"

Inguru teknologiko berri hone-tan eta kulturaren sorkuntza, banaketa eta kontsumoaren ohituren bilakaerarekin, zu apokaliptikoa edo integratua zara?

Esango nuke integratua naizela gehienbat, baina eroaldirik gabe. Nire jokabidea baliabide horien aurrean Montaignerena zientzialarien aurrean bezalako da: "Je les aime bien, mais je ne les adore pas".

Filosofia saiakera, doikuntza erraza al du panorama digital berrian?

Saiakera inguru digitalean doi daiteke, baina ez txio batean. Argudiatze filosofikoak espazioa behar du, nahiz eta inguru digitalak elkarrizketa lagundu, eta hori dagoen gauzarik filosofikoena da.

Irakurketa formatua pantailan edo paperean, irakurlearen hausnarketa ahalmenarengan eraginik al du?

Eragina duena norberak duen irakurketa ohitura aldatzea da. Niregan eragina izango luke pantailara pasatzea paperean irakurtzera ohiturik nagoelako, baina nire semearen adina duen jendeak jada ez du arazo hori.

Sare sozialen gorakada, kulturari benetako elkarrizketa baltio ematen dio, edo soinu hutsa da?

Nire ustez sare sozialek bertute garrantzitsuak dituzte (norbaitek ezkutatu nahi duena zabaltzea, adibidez), baina denbora, kontzentrazio eta sinesgarritasun falta laguntzearen arazo ikusten diot baita ere.



**MARÍA EUGENIA
SALAVERRI**

**IDAZLEA, AEE/EIE-KO
PRESIDENTEA**

NON ARITUKO DA?

Tertulia a dos con Fernando Savater
17:30-18:30

Idazlea, gidoilaria eta zinema ekoizlea, kazetaria eta abesti konposatzailea da. "Por qué te ríes?" eta "Un tango para tres hermanas" kontaketa bildumak argitaratu ditu, "Retrato de un pájaro" poema liburuaz gain. Bere kontaketak nazio mailako eta atzerriko antologia ugarietan sartu dira, hala nola "Narradores Vascos", "Últimos narradores (antología de la reciente narrativa breve española)", "Rainy Days (short stories by contemporary spanish writers)" eta "Wespennet (literatur aus Spanien)". Komunikabide ezberdinetan parte hartzen du eta El País egunkari-ko zutabegilea da bere Euskadiko edizioan. "Aurrez Aurre" Irakurketa Kluba zuzentzen du, Azkuna Zentrokoa (Centro Cultural de la Alhóndiga de Bilbao). 2012tik Euskadiko Idazleen Elkarteko presidentea da.

"TEKNOLOGIA ALDATZEN DA, BAINA GIZAKIAK IDAZLEEN IRUDIMENA, SORMENA, JAKINMINA BEHAR DU. ETA IDAZLEOK EZ GARA DESAGERTUKO"

Zer eman nahi dio AEE/EIEk bere bazkideei eta argitalpen munduari orokorrean 'Egilea argitalpen mundu berrian' III Jardunaldiarekin?

Bazkideei begira, bereziki, eza-gutza. Argitalpena abiadura handian ari da aldatzen eta egileek sektorearen eraldaketak ezagutu behar dituzte, zalantzarik gabe eragingo baitie, eta asko. Haien mesedetan egiteko kudeatzen badakite, eraginkortasun asko handiagoarekin lan egingo dute. Argitalpen munduari dagokionez, gure III Jardunaldia interes handiko hitzordu bilakatzen ari da, bertan mundu mailako ospedun erreferenteak izatera iritsi diren hizlarietako parte hartzen baitute.

Zer esan nahi du Euskadirentzako sektoreko kultura eta teknologia eztabaida eta analisi-erako geroz eta garrantzitsuagoa den topagunea edukitzea?

Jardunaldia kultura topagune oso garrantzitsua da eta horregatik publiko guztiari irekitzen dugu, denok bizi garen gizartea-errekiko ardura bat dugula uste

dugulako, ez bakarrik gure egileekin. Urte askoz, euskaldunok atzerrira bidaiatzen genuenean, etengabe terrorismoarekin eta bortizkeriarekin lotzen gintuzte-lapairatu behar genuen. Horrek aldatu beharra du eta sortzaileek aldaketa horretan parte hartu eta protagonista izan behar dugu ahal dugun heinean. Gure nahia da etorkizunean, Euskadiri buruz eta euskaldunoi buruz hitz egitean, gure kultura balioengatik eta gizarte ireki, aurrerakoi, kultu eta aske bat eraikitze-eginahalengatik aipatzea.

Hitz egin dezagun literatura egilearentzako AEE/EIEko bazkide izatearen abantaila buruz

Idazleentzako abantaila da aspektu askotan. Idazlearen lana bakartia da, baina denek nahi dute haien obra modu komuni-garrian zabaltzea eta irakurle kopuru handienari iristea. Elkar-tea ikusgarritasuna ematen dio idazleari, gure web orrialdearen eta sare sozialen bitartez bazkideei, eta gizarte-erokorrean, gure egileen literatura jardueren berri ematen baita.

AEE/EIEk idazleen interesak babestu eta defendatzen ditu, bazkide bakoitzak lege aholku-larritza eduki dezakeelarik jabetza intelektualari dagozkion gaietan eta argitalpenaren kontratuak kontrolatu, oso prezio abantailatsuan. Gure egileen obrak sustatzeaz bai eta bere aintzatespen sozialaz arduratzen gara ere. Gure egile guztiek Euskadi Sarian parte har dezakete, Elkar-teak bere babes-ema ematen baitie eta haien obrak ebazpenaz arduratuko den epaimahaira iritsiko direla bermatzen du. Gure bazkideek ere Bartzelonko Liburu Azokan tokia dute bertan haien nobedadeak aurkezteko.


Zein beste alderdi azpimarratuko zenuke?

Idazlea beti etengabeko formakuntzan dagoen norbait da. Bizigarria eta aberasgarria da ogibide kideak ezagutzea eta haiekin ekitaldiak, jarduerak eta topaketak elkar banatzea, interes berdinak dituzten egileen arteko lankidetzak laguntzen baitu. AEE/EIE 2010ean jaio zen hogeigile ingururekin eta gaur

egun hirurogeita hamabost baino gehiago ditu. Zifra garrantzitsua da, baina hura handitzea da gure nahia, hainbat eta gehiago izan, geroz eta indar gehiago edukiko dugulako idazleen interesak babesteko.

Idazle bezala, nola bizi dituzu idatzizko kultura sortzeko, banatzeko eta kontsumitzeko teknologiak sartzen ari duen aldaketak?

Harriduraz eta ilusioz. Gaur, teknologiari esker, beste gauza batzuen artean, errealitate hori aldatu egin da. Literatura periferikoak egile asko eta oso onak eman dituzte, argitaletxe txikiek bidea irekitzen ari dute —urte honetan daramagun denboran 140 ireki dira—, eta haien lana sare sozialetan funtsezkoa ari da izaten bere biziraupenerako. Teknologia aldatzen da, baina gizakiak idazleen irudimena, sormena, jakinmina behar du. Eta gu ez gara desagertuko.



asociación
escritores
euskadi

euskadiko
idazleen
elkartea

 <http://www.escritoresdeeuskadi.com>
 <http://www.facebook.com/Escritores.de.Euskadi>
 <http://twitter.com/AEEEEIE>